



Bertsozale Elkartearen Berripapera

# Bertsozalea

[www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus)

2021eko URRIA - 226. zenbakia

## Urriaren 24an jokatu da Abadiñon Euskal Herriko Eskolarteko finala

Lurraldeetako eskolarteko txapelketetatik sailkatutako hamaika bertsolarik parte hartuko dute saioan; sarrerak [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) atarian eskura daitezke.

Abadiñon izango da 33 Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketaren finala. Udaberrihasizuen bidea eskolartekoak lurraldeetako txapelketekin eta, guztiak jokatu ondoren, urriaren 24an izango da finala. Saioa 11:30ean hasiko da herriko probalekuan. Sarrerak eskuragai daude [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) atarian; doakoak dira, baina aurretiaz hartu beharko dira.

Finalean herrialde bakoitzetik bi bertsolari ariko dira kantuan, aurretik jokatu diren lurraldeetako finaletatik sailkatu direnak. Arabatik, Maddi Agirre Epelde eta Eukene de los Aires Amundarain; Bizkaitik, June Diaz Franco eta Janire Arrizabalaga Munduate; Lapurditik, Haira Aizpurua Ibargarai eta Oneka Arteaga Olasagasti; Nafarroatik, Beñat Astiz Isasi eta Eki Mateorena Zozaia; eta Zuberoatik, Aetz Etxart Sarasola.

Eskolarteko Bat-bateko Bertsolari Txapelketak gazteei jendaurrean bat-

batean jarduteko aukera ematea du helburu, baita haurrak eta gazteak bertsozaleak ere. Bertsozale Elkarteak lantzen dituen Elkartearekin elkarlanean antolatzen dugu egitasmoa.

### Sarik Abadiñora

2019an egin zen aurreko Euskal Herriko Eskolartekoa. Saran egin zen orduan eta hirurtekoa beteta, beste herri batera mugitzerako iritsi zen pandemiaren mehatxua.

lax Eskolartekoa egin ahal izan zen lurraldeetan, baina ondoren, Euskal Herrikoa egiteko zeuden zailtasunak tarteko, Eskolatik Plazara ekimena antolatu zen haren ordez, lurraldeetako eskolartekoetatik sailkatutako bertsolari gazteek jendaurrean kantatu zezaten. Udazkenean bada ere, 2021ean, honenbestez, itzuliko da Euskal Herriko Eskolartekoa.



Irati Alcantarilla, 2019ko txapelduna. //XDZ



Lapurditik Bizkaira egingo du salto Euskal Herriko Eskolartekoak. //XDZ



**IRURI ALTZERREKA  
MARTINEZ**  
Durango - 2021-X-03  
Bizkaiko Bertsolari Txapelketa

Doinua: Hil da Canovas fuera Canovas I

Oholtzara igo ta abestea niretzako lan nahiko zen baina kideak egon direnez albotik esaten "Goazen!" hala bideko kolpe guztiak babesez dira jasotzen nola ederra den gure lagunak ikustea hazten, loratzen jarrai dezagun bertsoarekin ta elkarrekin gozatzen.



Amasa-Villabonako Subijana etxean kokatuko da Lanku hemendik aurrera. //XDZ

## Aro berria abiatu da **Lanku Kultur Zerbitzuetan**

**Bertsolariei eta antolatzaileei ematen dien zerbitzuan jarriko du arreta osoa Lankuk hemendik aurrera; gainera, Bertsozale Elkartarekin egiten diren proiektuen garapena errazteko, Amasa-Villabonako Subijana etxera mugitu da Lanku.**

Berrantolaketa betean dago bertsolaritza eta kultur zerbitzuak eskaintzen dituen Lanku Kultur Zerbitzuak enpresa: bai egiten dituen lan lerroei dagokionez, bai lantaldearen osaketari begira, eta baita egoitza aldaketari dagokionez ere. Aldaketok Bertsozale Elkartean eta Lanku Kultur Zerbitzuen harremana estutzen eta elkarlanean egiten diren proiektu askoren garapena errazten lagunduko dutelakoan gaude. 2018. urtean Bertsozale Elkarteko bazkideok egin genuen Gogoeta Estrategikotik eratorri da berrantolaketa hau.

### **Lehentasuna, plazan**

Plazari begira are gehiago jarriko ditu indarrak Lankuk. Bertsolarien eta antolatzaileen arteko zubigintza izango da

enpresaren egiteko nagusia; hala, saioak antolatzeko zerbitzu integrala eskainiko die antolatzaileei eta bertsolariei. Bertso saioak, emanaldi bereziak, egile eskubideak, saioen ekoizpen lanak eta horiek dakartzaten administrazio, komunikazio eta bertsogintzako harremani lotutako lanak egingo ditu Lankuk; orain arte jorratutako argitalpen eta diseinu lanen lan-lerroa geldituko du horrenbestez.

Bertsozale Elkartean plazari begira lan egiten duen lantaldearekin bat egingo du Lankuk, talde bakarra osatuz. Ondorioz, taldearen funtzionamendu egokirako, Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parketik Amasa-Villabonako Subijana etxera mugitu da Lanku Kultur Zerbitzuak. Telefono zenbakiari eutsiko dio, edonola ere (+34 943 260755).

## Ostegunero elkartuko dira gazteak aurten ere **Ahostegunak ekimenean**

**18 urtetik 22 urtera bitarteko gazteentzako ekimena da; izen ematea [www.mintzola.eus](http://www.mintzola.eus) atarian egin daiteke urriaren 24ra arte.**

Ahozko kultur sorkuntzaz gozatzeko eta hauen bidez harreman sareak egiteko sortu zen Ahostegunak duela hiru urte. Antzerkian, bertsolaritzan, kantagintzan, literaturan... euskarazko ahazko sorkuntzan ari diren Euskal Herriko gazteak elkartzen dituen ekimena da.

Aurten ere 18 eta 22 urte bitarteko gazteak elkartuko dira ostegunero Donostian, Euskaltzaindiak egoitza duen Torale baserrian, UPV/EHuko Gipuzkoako campusaren aldamenean. Lau saio izango dira urriaren 28tik azaroaren 18ra bitartean;

ostegunetan, 16:00etatik 19:00etara bitartean. Kultur sortzaileak ere gonbidatuko dira eta parte-hartzaileek haiekin solasean egiteko aukera izango dute.

Ahostegunak ekimenean parte hartzeko izen ematea zabalik dago urriaren 24ra arte. Horretarako, [www.mintzola.eus](http://www.mintzola.eus) atarian sartu behar da eta bertan dagoen formularioa bete.

Ekimena Euskaltzaindiak, UPV/EHuko Mikel Laboa Katedrak, Mintzolak eta Bertsozale Elkartek antolatu dugu aurten.

# Eresti Oiarbide eta Maialen Akizu:

## “Gabirian bertsolaritza oso taldeko jarduna izan da eta ikerketa ere hala egin nahi izan dugu: taldean”

*Gabiriako bertsolaritza eta bertsolaritza Gabirian* proiektua saritu dute Kilometroak Kultur Elkarteak eta Mintzola Ahozko Lantegiak eskaini duten bigarren ikerketa beka honetan. Urtebete izango dute ikerketa osatzeko eta 3.000 euro jasoko dituzte horretara bideratzeko. Taldean jardungo dute ikerketan eta euretako bik eman dizkigute azalpenak: **Eresti Oiarbidek eta Maialen Akizuk.**

Bertsozaletasun handia duzue Gabirian, zertan nabaritzen da?

Eresti Oiarbide: Egunerokoan nabaritzen da, dagoen zaletasunean. Adibidez, txapelketetan edo inguruko herriren batean saioa dagoenean, sarri joan izan gara taldean. Zer esanik ez, daukagun bertsolari-pila, bai garai batean zein orain. Txikia den herri batetan hainbeste bertsolari eta bertsozale egotea berezia da.

Nondik sortu zitzaizuen ikerketara aurkezteko gogoia?

Maialen Akizu: Gabirian bertsozaletasuna eta bertsolaritza bera beste herri batzuen errealitatetik bereizten zirela bagenekien baina ez genion geure buruari galdetu zergatirik. Iazko abenduan herriko bertsolarien saioa egin zen eta, ondorengo otorduan, luze egon ginen Eusebio Igartzabalek eta Iñaki Muruak kontatutakoak entzuten. Grabagailurik ez eraman izanaren penaz gelditu ginen eta, beka deialdi honek Goierriko ahozkotasuna ardatz hartzen zenez, aukera albo batera utziz gero pena hartuko genukeen lan bat egitea erabaki genuen taldean.

Taldean egingo duzue lan, beraz. Garrantzia berezia hartuko du horrek ikerketan?

E. Oiarbide: Dударik gabe. Gabirian bertsolaritza oso taldeko jarduna izan da eta ikerketa ere hala egin nahi izan dugu: taldean. Hasieratik genuen garbi adin eta ikuspuntu ezberdinak bilduz eta norbera erosoan zegoen lanekin osatu nahi genuela ikerketa.

Hasita zaudete lanean?

M. Akizu: Egin ditugu bilera batzuk eta banatu ditugu hasierako lanak. Elkarrizketak egiten hasi gara, dokumentazio bilketa egiten, gaiari ekarpena egin dakioken jendea identifikatzen...

Baduzue hipotesirik? Zergatik izan daiteke hain herri bertsozalea izatea zuena?

E. Oiarbide: Gabirian belaunaldien arteko harremana estua izan da beti. Eskola txikia izateak, auzolanerako ohiturak, herriko dantza-taldeko parte hartzeak, elkarrekin martxak... Horrek guztiak adin ezberdinetako gabiriarrek elkarrekin denbora asko pasatzea dakar, eta, hori kanal ezin hobea da transmisiorako. Herrian parte hartzeko ohiturak iraun duen moduan, bertsoarekiko zaletasunak ere antzeko arrazoiengatik jarraitzen duela hain tinko uste dugu.

M. Akizu: Bereziki bertsozaletasunaren kasuan, bolada batean plaza askotan aritutako Eusebio Igartzabalen eta Iñaki Muruaren erreferentziak ere eragina izango zuela aipatu digute hainbat elkarrizketatan. Gainera, Osinalde sariketa ekimen garrantzitsua da eta izan da urteetan zehar Gabirian, eta antolaketa hainbat eta hainbat herritarrek parte hartzen dute urtero. Etxean zaletasuna jaso ez duenak ere, sariketaren aitzakian bertsoara hurbiltzeko aukera paregabea izaten du egun horretan.

E. Oiarbide: Dena dela, jakin badakigu inguruko hainbat herritan ere izan direla bertsolariak, baita urteroko bertso-saioak ere. Baina herri horietako gehienetan ez dago gurean adinako zaletasunik. Proiektuan zehar, baliteke beste arrazoiren batzuk ere topatzea.

Kanpora ere egin duzue dokumentazioa biltzeko eskaria.

M. Akizu: Gaiarekin zerikusia duen kontu oro ongi etorriak izango dira. Gabirian bertso-saioren batean izandako anekdotaren bat, argazkiak, gogoan hartutako bertsoak, irudiak... horrelakorik izanez gero, gustura jasoko ditugu gabiribertso@gmail helbidean.



Ikerketa egingo duten gabiriarretako batzuk, urriaren hasieran Ordizian egin zen aurkezpenean. //XDZ



## Puntua jarrita

AMETS ARZALLUS ANTIA

Aupa Ortzi, Paristik gure etxera gutun bat iristen den bakoitzean dardarka hasten naiz, ez diot usain onik hartzen, poz hartu dut zurea dela ikustean. Edukia eta forma uztartzeko bidean norantz ote noan? Ai-ui-oi, sagarroi, ileak xut-xut...

Bertsotan askotan egin ohi dugun bezala, nahita edo halabeharrez, ezer gutxi esanez poliki erantzun nezaizuke: noraezean ibiltzea dut gustuko. Agian nora joan ez dakidalako izango da, edo agian nora iritsi jakin nahi ez dudalako.

Destinu zehatz baten bila abailan dabilenak bide ertz ederrak uzten ditu deskubritu gabe, eta noraezean doanak uste gabeko deskubrimendu asko egiten du, buruan zuen hasierako destinu hura baino askoz emankorragoak. Horra bertsotan askotan gertatzen dena, ezer gutxiarekin edo ezerezarekin abiatu, eta betelanean-edo bidean zehar esanek uste gabe zentzua har dezakete, izan dezakete beren logika eta grazia, askotan ongi pentsatutako bukaera batek baino gehiago.

Noraezaren filosofia gustatu zait egia esan, ez nuen aurrez pentsatua baina.

Aurrez pentsatutako bideetatik erantzungo banizu, bai, iruditzen zait formari atentzio handia emanez ibili garela, eta segitzen dugula. Egia esan, errezagoa ere bada, bai lantzeko eta bai epaitzeko. Baina hotza ere bada hein batean, nahiz izugarritzko lilurak eragin izan dizkidan, eta ez dudan gutxietsi nahi. Gurea errima, metrika, eta ahotsa da, eta estetika hori bertsoaren parte handi bat da, baina etikaren zerbitzuko. Bertsoak zer esana behar du, izan, eta ahal bada, eragin. Baina noski, askoz sinpleagoa da teknika lantzea, errimak, hizkuntza... Bada orain, entzule gisan, errima nasaia darabilten bertsokerak ere apreziatzen hasi naiz, nasaitasun hori zerbait esan beharrak justifikatzen duenean.

Egia esan hemen ari naiz bla-bla-bla, baina ez dakit oren buru edukia eta forma bereiztezinak diren ondorioa ez ote garen iritsiko, dena ez ote den bat funtsean, edo hori ere gehiegi esatea da? Epaileren bati galdetu beharko nioke agian... Amerika aldean habil ala, Eneko? Zer berri han gaindi?

# Koplak

## Eman izena bertso-eskolan!

Ikasturte berriarekin batera, aukera paregabea eskaintzen dute bertso-eskolek bertsotan trebatu eta zaletasun bera dutenekin tarte on bat pasatzeko. Askotariko bertso-eskolak daude, adin zein nolokotasun askotarikoak. Gertuen duzun bertso-eskola ezagutuz gero, hara jo, edota galdetu dagokizun lurraldeko Bertsozale Elkartearen zein bertso-eskola dituzun eskura.

## Poto-Finixa



## Urriaren 18an hasiko da XXIX. BBK sariketa

laz legez, udazkenean jokatu da aurtien ere Bertsolari Gazteen BBK Sariketa. Taldeka jokatzeko da sariketa, sei laguneko taldetan. A multzoan 2003 urtean edo ostean jaiotako hiru bertsolari kantatuko dute; B multzoan 1996tik 2002ra arteko beste hiruk. Zortzi eskualde ordezkatu dituzten zortzi talde izango dira zirkuituan parte hartuko dutenak. Seikoteak Arratia, Busturialdea, Durangaldea, Enkarterri/Ezkerraldea, Hego Uribe, Lea-Artibai, Uribe Butroe eta Uribe Kosta eskualdeetako ordezkariak izango dira. Guztira lau kanporaketa, finalaurreko bi eta finala jokatu dira urrian eta azaroan. Finala azaroaren 29an jokatu da, 18:00etan, Bilboko BBK Salan.



Eskuragarri [www.lanku.eus](http://www.lanku.eus) atarian

PUBLIZTATEA